

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Aste honetarako Nafarroako Gobernuaren kultura-agenda

Gabonetako tailerrak, tailer pedagogikoak eta hiru filmeren proiektzioa, antolatutako ekitaldien artean

Astearte, 2017.eko abenduak 26

Nafarroako Gobernuak jarduera berriak antolatu ditu abenduaren 25etik 31ra bitarteko asterako:

Nafarroako Museoak eguberriko tailerrak hartuko ditu Bitartean-en eskutik, astearte, asteazken, ostegun eta ostiralean, 10:00etan. “Yo, la

peor de todas/Ni, denetan okerrena” erakusketa-proiektuaren barruan dago jarduera, eta 5 eta 12 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago. Oteiza Museoak eguberriko tailer pedagogikoak hartuko ditu astearte, asteazken, ostegun eta ostiralean, 10:00etan. Halaber, “Ikerketa tresnak arteen barruan eta kanpoan” tailerra egingo da Huarte zentroan, asteazkenean, 16:00etan, Lander Calvelhe eta Isabel de Naverán-en eskutik.

Nafarroako Filmotekak ondoko filmak proiektatuko ditu, 20:00etan: “Falso culpable”, asteazkenean; “Gueto. La película perdida de la propaganda nazi”, ostegunean; eta “The Seasons in Quincey”, ostiralean.

[Esteka](#) honetan duzu kultur programazio osoa.



Tailer pedagogiko bateko irudia.